

2017ko EKAINAREN 1eko OHIKO OSOKO BILKURAREN LABURPENA

1.- Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea.

2017/05/11ko akta onetsi da honako zuzenketekin:

Agrupacion Ultzama udal taldearen eskutik bere ordezkariak hartu du hitza, Erviti zinegotziak, eta adierazi du galde eskeen puntuan, eta zehazki honen hirugarren puntuan, aktan honako hau jasotzea falta dela: Behin Picabea zinegotziak "kostuak iragarleei eragiten diela, eta abar" esan ondoren AU udal taldeko Herranz zinegotziak erantzun zuen "hori dena Ultzamako bizilagunen kaltetan doa, eta gainera nahitaezko baliabideekin ordaintzen da, horrela legea hautsiz" gehituz. Idazkariaren aldetik adierazi da ez dagoela arazorik aktan zuzenketa hau egiteko.

Martinez Urionabarrenechea alkatearen partetik, aktaren 15. puntuaren inguruan berak esandako hitzen azalpen bat egin da, "EH Bildu Ultzama udal taldearen mozioa, Agrupación Ulzama udal taldeko Francisco Perez Arregui zinegotziak udaleko zinegotzi gisa dimisioa eman dezan eskatzeko" deitzen den puntuan, 11. paragrafoaren bukaeran (27 orrialdea), AU taldeko Erviti eta Herranz zinegotzietan erantzuten dienean, honela: "beraz, eskatu ziren diru laguntzak, Udalaren bitartez izan ziren Bioenergia Ultzama SL enpresa pribatuarentzat". Idazkariaren aldetik adierazi da ez dagoela arazorik aktan zuzenketa hau egiteko.

2.- Behin betiko onestea Ultzamako Udalaren Herrilurretako Ondasunak arautzen dituen ordenantza aldatzeko espedientea.

Alkateak eta Idazkariak gaia azaldu dute.

Idazkariak ordenantzan aldatu diren hainbat alderdi aipatu ditu, abeltzainek abereak mendira noiz eraman eta handik noiz erretiratuko dituzten udalari abisatzeko nahitaezko betebeharrari dagokionez, ahalik eta erredakzio onena ematen saiatzeko. Bertaratutako zinegotzi guztien artean paragrafo bat gehitzea onartu eta horren edukia adostu da.

Agrupacion Ultzama udal taldearen ordezkari Erviti zinegotziak galdetu du ea zergatik ezin duten komunalen aprobetxamendua aprobetxatu SAT-a bezalako nekazaritza-elkarteak, eta abar, praktikan horrelako aprobetxamenduak behar dituztenak baitira askotan. Idazkariak egia dela erantzun dio, baina herri-ondasunei buruzko legezko erregulazioaren arabera, aprobetxamendurako eskubidea duten subjektuak Nafarroako Toki Administrazioako 6/90 Foru-legearen 142 artikulua baldintzak betetzen dituzten familia-unitateak dira, (artikulua irakurri du), eta bere iritziz agian erregulazio hau zaharkituta geratu da eta berrikusi egin beharko litzateke errealitatea asko aldatu baita.

Aho batez erabaki da.

LEHENA.- Behin betiko onartzea "Ultzamako Udalaren Herrilurretako Ondasunak arautzen dituen ordenantza" aldatzea, herri-larreen aprobetxamenduaren erregulazioari buruzko artikuluei dagokienez (16tik 25era, biak barne).

3.- Ultzamako Udalaren herri-larreen aprobetxamenduak errentan emateko adjudikazioaren prozedura. 2017 eta 2024. urteen artean. HERRI LURREKO 3. LARREA (Larraintzarko Benta) Bidezko erabakiak hartzea.

Alkateak gaia azaldu du.

Idazkariak bertaratutako guztiei informatu die onartutako azken enkantearen ondoren –Interesatutako guztiei irekia Ultzamako izan ez arren-berau hutsik geratu dela... honi bi konponbide posible geratzen zaizkio: dagoen bezala utzi eta interesatua dagoen norbait agertu arte epe bat itxaron (motza edo ertaina), eta horri herrilur honen aprobetxamendua enkantearen oinarritzko prezioan esleitzea, edo prozedura berriz ere hasieratik hastea baina prezioaren beherapen batekin. Azken soluzio honek baldintza-agiria berriz ere onartzea ekartzen du, bi prozedura egitea (lehenbizi errenta baxua duten lehentasunezko aprobetxamenduarena eta ondoren bizilagunen zuzeneko esleipenarena), iragarkiak NAOn, iragarki taulan, eta abarretan argitaratu, eta hilabete bat edo bi hilabeteko epean ezin esleitzera eramango gintuzke.

Gaia bertan dauden korporazioko kideen artean modu ireki eta eraikitzailean eztabaidatu da eta azkenean bigarren soluzioa hitzartu da. Horretarako aurretik dagozkion kalkulu egokiak egin dira kobratu behar litzatekeen prezioaren inguruan, orain arte kobratzen zen prezioa eta erregu/urtea normalean kobratzen den errentaren batz besteko kostua oinarritzat hartuz, eta azkenik belardi honen lizitazioko oinarritzko prezioa 1200 eurotan jarri behar dela hitzartu dute, honen azalera ikusita gutxi gorabehera erregu/urteko 30 euro.

Aho batez erabaki da.

Ultzamako Udalaren herri-larreen aprobetxamenduak errentan emateko adjudikazioaren prozedura esleitu gabe uztea. 2017 eta 2024 urteen artean. HERRI LURREKO 3. LARREA (Larraintzarko Benta).

LEHENA.- 2017 eta 2024 urteen artean Ultzamako Udalaren herri-larreen aprobetxamenduak errentan emateko adjudikazioaren prozedura (Herri lurreko 3. larrea) eta dagozkion espedienteko dokumentuak (baldintza agiria) onartzea.

4.- Hasiera batez onestea aurrekontuaren 1/2017 aldaketaren Espedientea. Kreditu bereziak onestea.

Alkateak gaia azaldu du.

Idazkariak bertaratutako guztiei informatu die akordio proposamenean kantitateen inguruko akatsen bat dagoela, azkenean diruzaintzako gerakinetik 13.610 euro bakarrik gastatu behar direla azkenean.

Aho batez erabaki da.

5.- Alkatetzak martxoaren 17an emandako 61/2017 ebazpena berrestea; ebazpena Ultzamako 0 eta 3 urte arteko Haur Hezkuntzako Xinbili Xanbala ikastetxean 2017-2018 ikasturtean haurrak onartzeko prozedurari eta izena emateko eta matrikulak egiteko egutegiari buruzkoa da.

Alkateak gaia azaldu du.

Aho batez erabaki da.

LEHENA.- Ultzamako 0 eta 3 urte arteko Haur Hezkuntzako Xinbili Xanbala ikastetxean 2017-2018 ikasturtean haurrak onartzeko prozedurari eta izena emateko eta matrikulak egiteko egutegia onartzea.

BIGARREN.- Honako ebazpen hau, orain onartutako dokumentazioko kopiekin batera Odieta, Atetz, Anue, Lantz eta Basaburuko udaletxeetara eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentura bidaltzea.

6.- Mozioa onestea, Madrilgo Gobernuak 2012ko apirilaren 12an onetsi eta aplikatu zuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren indargabetzea eskatzeko.

Alkateak eta Idazkariak gaia azaldu dute.

Aho batez erabaki da.

7.- Alkatetzaren informazioak.

Martinez Urionabarrenechea Alkateak, lehen Biogas plantari lotuta zeuden kontzejuen jabetza duten baltsen erabileraren gaiari dagokionez, orain hainbat abeltzain erabiltzen ari direnak, honako hau jakinarazi du: baltsen erabilera lagatzeko abeltzainekin egin ziren kontratuetan 2017ko ekaina jarri zen muga eguna, baina, beste alde batetik, momentu oro argi utzi zen aldi baterako soluzio bat zela harik eta organismo ofizialek (INTIA, Abeltzaintza zerbitzua,...) modu indibidual batean ustiapen bakoitzarendako hondakinak kudeatzeko plan (edo txosten) berri bat egin arte. Kontua da INTIAko ordezkariekin bilera bat egin eta gero beraiek informatu dute kudeaketa-plan/txosten hori ez dela bukatuta egongo 2017ko urria edo azarora arte. Halaber abeltzainekin bildu dira eta hauek esan dute baltsak baldintza beretan erabiltzen jarraitzeko interesatuak jarraitzen dutela eta, era berean, kontzejuetako ordezkariekin bildu dira eta ez dute inongo arazorik ikusten gaur egun dauden kontratuen luzapen bat egiteko haiekin eta Udalarekin helburu horretarako. Gauzak horrela, bi aldeei baltsen erabileraren kontratuak luzatzea proposatu zaie aipaturiko kudeaketa plan/txosten hori egin aurretik eta bi aldeek bere adostasuna erakutsi dute.

Agrupacion Ultzama udal taldearen ordezkariaren aldetik, Erviti zinegotziak galdetu du ea denuntziaren bat egon den udaletxean abeltzainen

baten aurka euria ari zuenean minda larreetara botatzeagatik... eta alkateak erantzun dio Udaletxean ez dela horrelakorik egon.

8.- Exekutiboaren kontrola: Aintzat hartzea Alkatetzaren 2017ko 96. ebazpenetik 108.era.

Alkatetzaren ebazpenen edukiaren inguruan zalantzarik ez dagoenez kontuan hartu dira.

9.- Eskaerak eta Galderak.

Ez da eskaera edo galderarik izan.

Ultzamako abeltzain guztiekin bilera bat egin behar dela aipatu da Biogas plantaren irekierak izango lukeen interesari buruz hitz egiteko. Guztiak deituko dira, bai bere garaian plantan zeudenak eta baita ez zeudenak ere.